

# GIDARIAK GARA BATZUK, OINEZKOAK GUZTIAK

Irurtzungo Udalak, behin baino gehiagotan oinezko, zein gidariak diren herritarrei zuzendutako kanpainak antolatu ditu ohitura onak bultzatzeko, egon daitezkeen arrisku egoerak saihesteko eta herri mailan kotxearen erabilerak sortzen dituen arazoez jabetzeko.

Aurreko kanpainetan aipatutako puntu batzuk gogorarazi nahi ditugu, arazo berdinak errepikatzen ari direlako.



Zentzudunak izatearen eta errespetuz jokatzearen garrantziaz kontzientzia hartzen badugu ziur gaude ondoko lekuetan arazoak ez direlako sortuko:

- **Oinezkoan pasaguneak errespetatu.**
- **Amaia kalea oinezkoentzat dela errespetatu.**
- **Zamalanak, garraio publikorentzat eta Osasun Etxearentzat erreserbatutako tokiak errespetatu.**
- **Ezgaituentzako aparkalekuak errespetatu.**
- **Kaleko espaloietan ez sartu.**

Bestalde, Irurtzungo Udalak ez duela bado zerbitzurik gogorarazi nahi dizuegu. Beraz zentzuz eta errespetuz jokatzea derrigorrezkoa da. Horregatik:

**“Ez dugu egin behar, guri egitea gustatzen ez zaiguna”**

Oinezkoek ere erantzukizuna izan behar dugu eta konstziente izan, bide publikoaren erabilera egokia egin behar dugula:

- **Oinezkoentzako pasaguneak erabiltzea.**
- **Espaloia erabili eta errepidean ez sartu.**
- **Umeen gurdi eta gurpildun aulkiekin arduratsu izatea.**



**Atakondoa Eskola Publikoaren sarbidean egoera kezkarria izaten jarraitzen du, arrisku egoerak sortzen dira.**

Kanpainak egiten direnean hobekuntza somatu arren, berriro, kotxeen gehiegizko erabilera nabaria da. Eskola orduko sarrera/irteeran kotxearen erabilera murriztu behar dugu.

Atakondoako zuzendaritzarekin hitz egin da beraiek ere kanpaina honetan parte har dezaten.

